



GALDERAK **ETA** **ERANTZUNAK**

ERRETZEN HASI AURRETIK **GOGOETA EGITEKO**

KERIK GABEKO GAZTEAK
PROGRAMAN PARTE HARTZEN DUTEN
IRAKASLEEI LAGUNTZEKO
MATERIAL DIDAKTIKOA
Lehen Hezkuntzako 6.maila

1. - Zigarro elektronikoari buruzko adierazpenak: (erantzun bat baino gehiago eman dezakezu)

A. Ur-lurruna da.

B. Begietan eta arnasbideetan narritadura
sortzen du.

C. Substantzia toxikoak dauzka; horietako batzuk
kartzinogenoak .

D. Zigarro klasikoak adina nikotina eduki dezake.





Erantzuna: B, C eta D

Material osagarria:

Zigarreta elektronikoak: diruditen bezain kaltegabeak?:

<http://revista.consumer.es/web/eu/20140101/pdf/salud-2.pdf>

2.- Zer areagotzen da zigarroa erretzen dugunean?

- A. Sexu-erakargarritasuna.
- B. Adimen-errendimendua.
- C. Autoestimua.
- D. Antsietatea.





Erantzuna: D.

Material osagarria:

Objetivo Bienestar (AtresMedia)_Los fumadores ligan menos

<http://www.objetivobienestar.com/bienestar/bienestar-del-entorno/-sabias-que-los-fumadores-ligan-menos-4017.html>



3.- Tabakoaren kontsumoari eta emakumeei buruzko ondorengo adierazpen hauetako bat gezurra izan daiteke. Zein?

- A. Tabakoa bereziki kaltegarria da emakumearen osasunera.
- B. Erretzen duten emakumeek emalezintasuna eta bat-bateko abortuak izateko arriskua areagotzen dute.
- C. Tabakoaren industriak emakumeak erakartzeko trikimailuak erabiltzen ditu: marka bereziak, koloretako bilgarriak eta edertasunari eta independentziari buruzko publizitatea.
- D. Erretzaileak ahozko antisorgailuak hartzen baditu, handitu egiten du bihotzeko gaitzak izateko arriskua.
- E. Erretzeak ederrago egiten du emakumea.





Erantzuna: E



“Ziur asko, emakume erretzaileen ehunekoa handitu egingo da. Emakumeak gero eta rol menderatzaileagoak hartzen ari dira gizartean, erosteko ahalmena ere handitu dute... Horren guztiaren ondorioz, emakumeak helburu garrantzitsua dira...” --
Tobacco Reporter, 1981

Tabakoaren kontrola funtsezko osasun-gaia da emakumeentzat. Gaur egun, gizonek emakumeek baino lau aldiz gehiago erretzen dute, baina gizonen kasuan tabakoaren kontsumo-indizeek puntu gorena lortu duten bitartean, emakumeen kasuan tabakoaren kontsumoa handitzen ari da oraindik. Garatzen ari diren herrialdeetan gertatzen da bereziki hori, eta Europako hegoaldeko, erdialdeko eta ekialdeko herrialdeen talde batean. Tabako-industriarako, garatzen ari diren herrialdeetako emakumeei eta neskatoei tabakoarekin lotutako produktuen salmenta bere produktuak munduan merkaturatzeko aukerarik onenetakoa da. Tabakoak emakumeentzat dituen arriskuak ezagunak diren arren, hamarkada askotan tabako-konpainiek emakumeak eta neska gazteak izan dituzte helburu, eta tabakoaren kontsumoa emakumeak independente eta aske izateko edo erakargarriago eta ederrago izateko desio unibertsalarekin lotzen duten marketin-kanpainak egin dituzte: berariaz emakumeen arretra erakartzeko diseinatutako produktuen bitartez, esate baterako, usaindun zigarreten edo bilgarri berrien bitartez. ...

Emakumeak eta tabakismoa

Erretzen duten nerabeek birrikak handitzeko indizea murrizten dute, eta emakume helduek organo horren gaitz goiztiarrak jasaten dituzte. Emakume erretzaileek kontzepzioa atzeratzeko eta lehen eta bigarren mailako ernalezintasunerako arriskua handitzen dute, eta haurdunaldi ektopikoen eta bat-bateko abortuen arriskua ere apur bat handiagoa izan daiteke. Menopausia erretzen ez dutenei baino lehenago iristen zaie, eta, beharbada, menopausiarekin lotutako sintoma gehiago. Haurdun gelditu aurretik edo haurdunaldian erretzeari uzten dioten emakumeek ugaltze-funtzioaren emaitzen eragin kaltegarrien arriskuak murrizten dituzte: kontzepzioaren atzerapena, ernalezintasuna, mintzen hauste goiztiarra, erditze goiztiarra eta jaioberriaren pisu baxua. ...



Material osagarria:

http://global.tobaccofreekids.org/files/pdfs/es/WT_essential_facts_es.pdf

http://global.tobaccofreekids.org/files/pdfs/es/WT_health_harms_es.pdf



4.- Kalkulatu zenbat gastatzen duten tabakoan Ikerrek eta Zurik asteen eta urtean, jakinik Ikerrek erretzen duen markako paketeak 4,80 euro balio duela, eta Zurik erretzen duenak 4,60 euro. Asteen gastatzen dutena zure asteko sariari aplikatuta, zenbat diru geldituko litzaizuke beste gastu batzuetarako? Planteatu diru hori gastatzeko beste aukera interesgarriago batzuk.





Erantzuna: Ikerrek egunean 2,40 € gastatzen ditu tabakoan, edo 16,80 € astean. Zurik astean 9,20 € gastatzen ditu. Kopuru horiek bider 52 aste eginez gero (urteko astekopurua), Ikerrek 873,60 € gastatzen ditu urtean tabakotan, eta Zurik 478,40 €. Zer deritzozu?

Material osagarria:

<http://cuestionarios.msssi.gob.es/index.php/464684?lang=es>



5.- Erretzaile pasibo bihurtzen gara...

- A.- soilik lagun erretzaile batek kea aurpegira botatzen dugunean
- B.- bakarrik leku txiki eta itxi batean gaudelarik bertan erretzen ari direnen kea arnasten dugunean
- C.- tabakoa erre gabe gaudelarik gure inguruko pertsona erretzaileen kea arnasten dugunean
- D.- gogorik gabe zigarroa erretzen dugunean





Erantzuna: C.



Erretzaile pasiboarentzako arriskuak

Erretzaile pasibo edo oharkabe batek beste pertsonen kea arnasten du.

Zein da erretzaile pasiboa?

Erretzailea izan gabe “tabakoaren keak kutsatutako airea” (TKKA) maiz arnasten duena. Bi ke mota dira TKKA osatzen dutenak: zigarroak berez jariatzen duen kea eta erretzaileak erre bitartean botatzen duena. Harrigarria bada ere, erretzaileak inhalatzen duen kea baino kaltegarriagoa da pasiboak arnasten duena, substantzia kaltegarri gehiago dauzkalako.

Orain dela urte asko, “modu pasiboan” erretzeak kalte arinak —begietan narritadura— bakarrik eragiten zituelako ustea zegoen. Hala ere, gaur egun badakigu erretzaile pasiboak gehiagotan jasaten dituela alterazioak erretzaile arruntak baino; eta izaten dira arnasbidekoak, bihotzekoak, otorrinolaringologiakoak, bai eta biriketako minbizia ere.

Haurrak dira bereziki tabakoaren ondorioak jasaten dituztenak. OMEren arabera, gaur egun bizi diren haurretatik 250 milioi hilko dira tabakoaren ondorioz.

Zein dira erretzaile pasiboaren arriskuak?

Tabakismo pasiboak urtero hiltzen ditu erretzaile ez diren milaka pertsona heldu, Europar Batasunean.

Biriketako minbizia:

Tabakismo pasiboa ez da soilik bizikidetzaz arazo bat.

Bronkio eta biriketako minbizia edukitzeko arriskua %35 handitzen da erretzaile pasibo edo oharkabeentzat.



Gaixotasun kardiobaskularrak:

Gaur egun frogatuta dago kea arnasteak lotura handia duela gaixotasun koronarioekin. Erretzaile pasiboek infartua edukitzeko arrisku handiagoa dute: %25-35ekoa.

Arnasbideetako gaixotasunak:

Antza denez, enfisema edota BGBK (Biriketako Gaixotasun Buxatzaile Kronikoa) eragin dezake tabakoaren keak erretzaile ez diren pertsona helduengan.

Tabakoaren kea arnasten duten hurrek arrisku handiagoa dute arnasbideetako gaixotasunak edukitzeko: pneumonia, bronkitisa, haur-asma... Gaixotasun horiek, gainera, areagotu egin dezakete beste gaixotasun batzuk edukitzeko aukera hurraren bizitzan.

Tabakoaren keak eragiten dituen ondorio kaltegarri gehiago

Sudurrean, begietan eta arnasbideetan (eztula, flemak...) narritadura edukitzea da ondoriorik ohikoena, tabakoaren keak kutsatutako airea arnasten denean.

Haurdunaldia eta tabakismo pasiboa

Emakume haurdunak erretzen duenean, fetua erretzaile pasibo bihurtzen da; izan ere, kearen osagaiak (bereziki nikotina eta karbono monoxidoa) plazenta barrura sartzen dira, eta hainbat alterazio eragiten dute, besteak beste:

- Jaioberriaren pisua txikiagoa izaten da (200 g, gutxi gorabehera).
- Bat-bateko heriotzaren sindromea eduki dezake bularreko umeak.
- Erditze goiztiarra eta ustekabeko abortua izateko arriskua handitu egiten da.
- Plazentan alterazioak ager daitezke, hala nola, plazenta-askatze goiztiarra eta aurretiko plazenta (plazenta umetoki-lepoan kokatzen da); eta zailago egiten dute haurdunaldia nahiz erditzea.

Erretzaile pasiboa baldin bazara:

Adierazi zure eskubideak eta eska ezazu ez dezala inork tabakorik erre zure ondoan !



Material complementario:

<http://www.who.int/features/qa/60/es/>

<http://revista.consumer.es/web/eu/20080401/salud/72475.php>



6.- - Tabakoarekin zuzenean lotutako ondoko arazo hauetatik, zein edo zeintzuk ikusten dira gehien epe laburrean?

- A.** Biriketako minbizia.
- B.** Nahasmendu kardiobaskularrak.
- C.** Hats gaiztoa eta aurpegiko zimurrak behar baino lehen agertzea
- D.** Ohetik altxatu ez tul egin





Erantzuna: C

Material osagarria:

<http://www.sanitas.es/sanitas/seguros/es/particulares/biblioteca-de-salud/dejar-fumar/san005150wr.html>

http://www.tobaccobody.fi/n_en.php



7.- Erretzeari eta tabakoari buruzko ondorengo adierazpenetatik edo sinesmenetatik, zein dira egiazkoak?

- A.** Erretzeak nerbioak lasaitzen ditu
- B.** Errez gero independenteago zara
- C.** Erretzeak pisua galtzen laguntzen du
- D.** Errez gero hobeto pasako duzu eta helduago sentituko zara
- E.** Aurreko guztiek gezurra diote





Respuesta: E.

Material osagarria:

<http://www.elmundo.es/elmundosalud/2005/08/25/tabacodossiers/1124983555.html>

8.- Ondorengo zeinu, sintoma edo sentipenetatik, zein dagokie erretzaile gazteei?

- A.** Txistu asko sortzen dute ahoan.
- B.** Aurpegiko zimurrak behar baino lehen agertzen dira.
- C.** Hats gaiztoa eta muxu desatseginak.
- D.** Guztiak







Erantzuna: D.

Material osagarria:

<http://www.tobaccofacts.org/poster/index.html>

9 - Nola saiatzen da giza gorputza tabakoaren pozoira egokitzen?

- A. Birikiek edukiera handitzen dute ke gehiago irensteko.
- B. Bronkioak hazi egiten dira kea hobeto igarotzeko.
- C. Arteriak zabaldu egiten dira odoletik hobeto igarotzeko.
- D. Globulu gorri gehiago sortzen da, oxigeno gutxiago heltzen delako odolera.





Erantzuna D

Material osagarria:

<https://dejadefumarconconocimiento.wordpress.com/2012/02/11/taquismo-y-enfermedades-circulatorias/>

10-Tabakoak sortzen duen kutsadurari dagokionez. Zein da itsasertzean gehien aurkitzen duten objektu kutsatzailea?

- A. Plastikozko botilen tapoiak
- B. Plastikozko bilgarria (gozokienak, patata frijituen poltsak, , etc.)
- C. Zigarro-puntak
- D. Edarien latak





Respuesta C

Material complementario

Ocean Conservancy erakundeak jasotako datuen arabera (www.oceanconservancy.org), zigarrokinak dira gehien jasotzen diren objektuak, urteroko garbiketa-kanpainan, eta, ondoren, plastikozko bilgarriak. Hona, 2013an jasotako emaitzen taula. Datu eguneratuagoak nahi izanez gero (ingelesez), bisitatu GKEren web-orria.



Zka.	OBJEKTUA	GUZTIRA	BITXIKERIA BAT
1	Zigarrokinak	2.043.470	Lerrokatzen baditugu, eskolako 4.257 autobusetako lerroa egiteko beste zigarrokin dago. Bazenekien zigarrokin horiek (iragazkiak), benetan, zelulosa azetato izeneko plastiko batez eginda daudela?
2	Jakien bilgarriak	1.685.422	Bazenekien jakien bilgarri gehienak, baita patata-poltsak eta gozokien bilgarriak ere, plastikozkoak direla egiatan? (Begira itsasoko zaborraren osaera gehiago ikasteko)
3	Plastikozko edari-botilak	940.170	Super Bowl ikusten ari den zale bakoitzari 11 freskagarri emateko beste edari-botila daude.
4	Plastikozko botilen estalkiak	847.972	Bazter batetik bestera lerrokatzen baditugu, 3 futbol-zelai estaltzeko beste estalki daude.
5	Lastotxoak/	555.007	Estatu Batuetan, soilik, 500 miloi lastotxo erabiltzen eta botatzen dira.
6	Nahasgailuak	441.493	Denak batzen baditugu, kamio batek baino gehiago pisatzen dute poltsa guztiek.
7	Erosketa egiteko plastikozko poltsak	394.796	Beirazko edari-botilak politak eta bikainak izan daitezke berrerabiltzeko, esaterako, pitxarrak edo beste artisau-proiektu batzuk.
8	Beirazko edari-botilak	389.088	Atal honetan, zabor-poltsak, bokaten poltsak, jantzi-dendetako poltsak, egunkarietakoak eta beste askoz gehiago sartzen dira.
9	Plastikozko beste poltsa batzuk	368.746	Uste denez, estatubatuarrek paperezko 10 bilioi poltsa kontsumitzen dituzte urtean. Poltsa asko dira!
10	Paper-poltsak	339.170	Birziklatu eta gero, aluminiozko lata bat 60 egunetan bakarrik bihurtzen da lata berri bat.
11	Edari-latak	312.996	Kategoria honetan, freskagarri- eta kafe-basoetan eramateko edarien estalkiak sartzen dira.
12	Plastikozko estalkiak	304.638	Botilen metalezko estalkiak bikainak dira eskulanak egiteko. Jaso itzazu metalezko estalkiak, argazki-marko bat dekoratzeko edo dama-jokoa egiteko.
13	Botilen estalkiak (metalezkoak)	282.743	Beste plater eta edalontzi daude jai bat antolatzeke eta Newark-eko biztanle guztiak gonbidatzeko. New Jersey
14	Plastikozko platerak eta edalontziak	234.692	Hurrengoan, kontuan hartu ontzi horiek berriro erabil ditzakezula, kromoak edo, eskulanak egiteko osagarriak eramateko edo biltzeko.
15	Plastikozko ontzi eramangarriak	233.595	Hemen sartzen dira plastikozko lonak, plastikozko kutxak, arrantzako amuak eta, etxetresna elektrikoak eta produktu elektronikoak babesteko kortxo zuria. Sinestezina bada ere, kortxo zuria ere plastiko mota bat da.

ITURRIA: ITSASERTZEN NAZIOARTEKO GARBIKETA 2013

Zerrenda eguneratuago bat ikusteko www.oceanconservancy.org/our

Jakiteko zein den gehien aurkitzen diren objektuen tokiko zerrenda www.coastalcleanupdata.org



ESTEKA INTERESGARRIAK:

<http://www.estilosdevidasaludable.msssi.gob.es/tabaco/home.htm>